



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2018KO UZTAILAREN 27AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2018ko uztailaren 27an, arratsaldeko 17:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz, M^a Mar Ansorena eta Bakartxo Ripalda.

BERTARATU EZ DIRENAK: Aitor Arangoa.

Bertaratu da baita ere Ascensio Indakoetxea (Berueteko kontzejuko alkatea) eta Juan Bautista Arrarats Berueteko bizilaguna.

17:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.

Ekaineko ohiko batzarreko akta, eta uztailaren 16 eta 20ko ezohikoak emailez bildutakoei bidaliak aho batez onartzen da.

2.- Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

-2018/49 alkate ebazpena ekainaren 18koa Inaxio Azkoagari zuzendua onartuz Basaburuko Udaleko idazkariak 2018ko ekainaren 18an sinatutako alegazio txostena eta ez onartuz Inaxio Azkoaga Lasherasek jarritako helegitea, helegitearen oinarria zuzenbidera egokitzen delako, txosten juridikoaren arabera.

- 2018/50 alkate ebazpena ekainaren 27koa Eurocontrol enpresari zuzendua onartuz Taxonarren sedea duen Eurocontrol S.A enpresak aurkeztutako aurrekontua, 70 eurokoa (BEZ KANPO), eskolako igogailuaren ikuskapena egiteko.

- 2108/51 alkate ebazpena ekainaren 27koa Joaquin Chocarro S.L enpresari zuzendua, onartuz Iruñean sedea duen Joaquin Chocarro enpresak aurkeztutako aurrekontua, 3.015,14 eurokoa (BEZ KANPO) Apeztegi berriko dendan izozkailua jartzeko Ernaizu Koop elkarteak egindako eskaeraren arabera.

- 2018/52 alkate ebazpena ekainaren 28koa Baurakov Plamen Blagoev-i zuzendua onartuz 2014 urteko Zirkulazio zergaren itzultzea kobraketa bikoiztua zegoelako, itzuli beharreko kopurua 114,99 eurokoa izanen delarik.

- 2018/53 alkate ebazpena uztailearen 2koa Jose Antonio Gamboa Anduezari zuzendua onartuz 2018 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 4289DSD matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 35,06 eurokoa izanen delarik.

- 2018/54 alkate ebazpena uztailearen 18koa Karikolar Elektrizitate enpresari zuzendua onartuz Karikolar Elektrizitatea enpresak aurkeztutako aurrekontua, eskolako beheko solairuko pasilloko argiak aldatzeko, 598,45 eurokoa (BEZ KANPO).

Bildutakoek jakintzat ematen dituzte alkate ebazpenak.

3.- 2018ko aurrekontua. Behin betiko onespena

Alkateak adierazten du hasiera batez aurrekontua maiatzaren 28ko batzarrean onartu zela, ekainaren 15eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta uztailearen 6a arte egon da jende aurreko epean eta ez dira alegazioak aurkeztu.

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- 2018ko aurrekontu behin betikoz onartu, onartutako behin behineko gastuak 1.190.958,30 eurokoak izanik eta sarrerak 1.191.532,36 eurokoak eta 1990/6 Toki Administrazio Foru Legearen 277. artikulua arabera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.

4.- 2018ko plantilla organikoa. Hasierako onespena.

Alkateak irakurtzen du 2018ko plantila organikoaren proposamena. Honekin batera azaltzen du euskararen profilak arautzen dituen arautegia aldatu dela eta gutxieneko profila orain B1ekoa dela. Ulertzen da jendeaurreko harreta ematen dutenen euskara maila altua bermatu behar dela baina ez da garbi ikusten zerbitzu anitzetako lanpostuaren euskara eskakizuna ez garbiketa zerbitzuko lanpostuena. Euskararen maila lanpostuekin lotuta Euskara Batzordean aztertuko da eta plantillaren behin betiko onespenerako aurkeztu. Momentuz onartzen den plantila ondoren zehazten dena izango da.

ZBKIA	LANPOSTUAREN IZENA	MAILA TALDEA	SARBIDEA	Osagarriak	Hizk. profila	EGOERA
01	Administrari-ofiziala	C	Barne promozioa	%12 M. %3,54 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
02	Zerbitzu anitzetako langilea	D	Oposizio lehiaketa	%12 M. %42 L.O.	C1/EGA ahoz, B1 idatziz	Hutsik

03	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa	%46,38 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik
04	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa	%25,76 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik
05	Haur Eskolako zuzendaria	B	Oposizio lehiaketa		C1/EGA edo baliokidea	Hutsik
06	Haur Eskolako hezitzailea	C	Oposizio lehiaketa		C1/EGA edo baliokidea	Hutsik
07	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa		B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik

IZENEN ZERRENDA

FUNTZIONARIOAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTU A	MAILA	ZERB. ONART.	GRADU A	OSAGARRIA K	EGOER A	LANALDI A
Elena Gaskue Jaunarena	Administrari laguntzailea	C	2000-03-28	3	%12, %21,54	Jardunean	%66,67

ALDI BATERAKO ADMINISTRAZIO KONTRATUDUNAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA A	ZERB. ONART.	OSAGARRIA K	EGOER A	LANALDI A
Patxi Biurrarena Barrenetxea	Zerbitzu anitzetako langilea	D	2011-11-01	%12, %42	Jardunean	%100

ALDI BATERAKO LAN KONTRATUDUNAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA A	ZERB. ONART.	OSAGARRIA K	EGOER A	LANALDI A
---------------	-----------	------------	--------------	----------------	------------	--------------

M ^a Cruz Ayensa Azcona	Garbiketa zerbitzua	E	2006-01-01	%46,37	Jardunean	%60,50
M ^a Begoña Azpiroz Muguruza	Garbiketa zerbitzua	E	2006-01-01	%25,74	Jardunean	%63,51
Jaione Beunza Osacain	Haur eskolako zuzendaria	B	2017/09/01		Jardunean	%100
Amaia Ariztegui Barberena	Haur eskolako hezitzailea	C	2017/09/22		Jardunean	%100
M ^a Paz Echarri Echeguia	Haur eskolako garbitzailea eta jantokiko laguntzailea	E	2017/11/02		Jardunean	%62

Bildutakoak aho batez ondoko erabakia hartzen dute:

- Hasiera batez onartzea 2018ko plantilla organikoa eta 1990/6 Toki Administrazio Foru Legearen arabera 235. artikularen arabera Nafarroko Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.

5.-Mozioak

Ez daude.

6.- Batzordeen informazioa.

-Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Abuztuaren 4an pasarela eguna ospatuko da eta egitarauaren barruan antzerki bat antolatu da.

- Garapen Batzordea. Xabier Azpirozek ematen du informazioa.

Cederna Garalurren bileran beste garapen agente bat kontratatzea proposatu zen lanaldi erdiarekin, orain ordaintzen den kuotarekin. Uztailaren 31a arte epea ireki zuten Cedernako udalek bere baiezkua emateko proposamen honi. Baiezko hau batzarrean adostu behar da eta bidali dute hitzarmen eredu ere onartu.

- Kirol Batzordea. Bakartxo Ripaldak ematen du informazioa.

Gartzarongo esku pilota txapelketa hasi da, neskek ere izango dute tokia txapelketan, 4 bikotek izane eman dute jada.

Uztailaren 22an mendi irteera burut zen eta 22 pertsonak parte hartu. Ekainaren 30ean Rogaine proba ospatu zen ere Basaburuan, oso harrera ona izan zuen ekimenak (170 pertsonak izena eman zuten).

Abuztuaren 12an senden eguna egingen da Erason.

7.- Informazio orokorra.

.- Nafarroko Emplegu Zerbitzua. Langabetuak kontratatzeke dirulaguntza onartuz, Basaburuko bailarako gune turistikoaren mantenimendurako proiekturako, bi langileen kontratazioagatik 6.300 euroko dirulaguntza.

Alkateak gai ordenetik kanpo badaude beste hiru gai daudela aztertzeke azaltzen du eta bildutakoek gai zerrendan sartzea onartzen dute.

Ihabengo ur hornidura eta sareen berritzeke obren bideragarritasun plana

Alkateak azaltzen du Nafar Gobernutik deitu dutela adieraziz, kontutan hartuta, sareak berritzeke obra 2018ko aurreikusten dena eta ur hornidurarena 2019rako dena, elkarrekin egin behar direla, obra bakoitzak bere bideragarritasun plana eskatzen duela eta kontutan hartuta udalak egin behar duena, hau da ur hornidurarena aurreratu behar dela, eskatzen dute obra honen %100eko finantzaaketa justifikatzea. Tesoreria gerakina ez dagoenez obra guzti hau eta sareen berritzearen defizita justifikatzeke baina ikusita udalak zorpetzeke aukera duela, ur horniduraren obraren bideragarritasuna maileguarekin justifikatuko da. Honek ez du esan nahi mailegua hartu behar denik, kontutan hartu behar da eta kontzejuak jarri behar duela sareen berritzearen defizita eta oraindik udalak jasotzeke duela libre determinazioaren zatia, bakarrik kobratu zirelako 7950 euro. Toki Administrazioke Departamentuan eskatuko

dira honen inguruko azalpenak, kobratutako ebapzenaren kontra jarri zen helegitearen inguruan,

Alkateak irakurtzen ditu bi bideragarritasun planak eta bildutakoek aho batez ondoko erabakia hartzen dute:

- Onartzea Ihabengo ur sareak berritzeko eta ur hornidura obrarako bideragarritasun planak eta Nafar Gobernura bidaltzea obra baimendua izan dadin.

Garapen agente kontratatzeke proposamena.Cederna Garalurrekin sinatzeko hitzarmenaren onespina.

Alkateak adierazten du lehen aipatu den bezala Cederna Garalurrek jardunaldi erdian beste pertsona bat kontratatzeke proposamen luzatu diela udalei. Honekin mendialdearen garapen turistikoa landu nahi da bereiziko lehengo sektorearena. Kontratazio hau urte batekoa izanen da.

Bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute.

-Onartzea Cederna Garalurrekin sinatu beharreko hitzarmena aipatu den garapen turistikoa kudeatzeko eta horretarako kontratatuko den langilearen gastua udal honi dagokion zatian.

-Jakinaraztea erabaki hau Cederna Garalur entitateari

- Udaleko kalefakzio instalazioa aldatzeke aurrekontua.

Alkateak azaltzen du kalefakzio sistemak isurdura izkituak daudela udaleko beheko solairuan eta honek hezetasunak sortu dituela. Iturginak aztertu du egoera eta 3 tokian aurkitu isurdurak. Aseguroarekin hitzegin da eta haiek adierazi dute bere kargu hartuko dutela bakarrik isurduren konpocketak eta paretak margotu. Iturginak egokiagoa ikusten du kalefakzio sistema kanpotik egitea eta lur azpian dagoena itxi. Horretarako aurrekontua prestatu du 2729,76 eurokoa BEZ kanpo.

Bildutakoak erabaki hau hartzen dute:

- Onartzea Mikel Alsua Aristegik aurkeztu duen 2.729,76 euroko aurrekontua (BEZ kanpo), udaleko kalefakzio sistema berritzeko.

-Jakinaraztea erabakia hau Mikel Alsua Aristegiri.

8.- Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez arratsaldeko 18:00 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.